

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

563

9/2025 EBAZPENA, urtarrilaren 22koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Lanbide-Euskal Enplegu zerbitzuaren eta Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundearen artean sinatutako hitzarmena, erakunde gaitutzat jarduteko transakzio elektronikoak egiten, pertsona interesdunen izenean eta haien kontura, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioekin lotutako prozeduretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aipatu den hitzarmena sinatu du, eta, behar bezalako zabalkundea emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Lanbide-Euskal Enplegu zerbitzuaren eta Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundearen artean sinatutako hitzarmena, erakunde gaitutzat jarduteko transakzio elektronikoak egiten, pertsona interesdunen izenean eta haien kontura, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioekin lotutako prozeduretan. Hitzarmen hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 22a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN URTARRILAREN 22KO 9/2025
EBAZPENARENA

HITZARMENA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ETA ZABALTZEN-SARTU
KOOP. ELK. DE INICIATIVA SOCIAL ERAKUNDEAREN ARTEKOA, ERAKUNDE
GAITUTZAT JARDUTEKO TRANSAKZIO ELEKTRONIKOAK EGITEN, PERTSONA
INTERESDUNEN IZENEAN ETA HAIEN KONTURA, DIRU-SARRERAK BERMATZEKO
EUSKAL SISTEMAREN PRESTAZIOEKIN LOTUTAKO PROZEDURETAN

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abenduaren 2an.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Aldebatetik, Miguel Torres Lorenzo, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lehendakari eta legezko ordezkari, erakunde horren izenean eta hura ordezkatzuz, maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuen 5. artikulua araber.

Marta Senz Eriz, Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundeko Koordinatzaile Nagusia eta Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundearen legezko ordezkaria, haren izenean eta hura ordezkatzuz.

Hitzarmena sinatzeko beste gaitasun juridiko badutela aitortu diote bi alderdiek elkarri; eta, horrenbestez, honako hau

AZALTZEN DUTE:

I.– Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legeak zioen azalpenean bertan jasotzen du garrantzitsua dela euskal herritarrek Sistemaren erdigunean kokatzea eta ziurtatzea pertsona guztiak berdinak direla administrazio eskudunekiko jarduketa juridikoan dabiltzanean.

Hala, 9. artikuluan, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen, laguntzen, tresnen eta zerbitzuen titularren eta onuradunen eskubideak ezartzen ditu, honako hauek barne: informazio osoa, egiazkoa, jarraitua, ulergarria, irisgarria, nahikoa eta eraginkorra lortzeko eskubidea; gauzak ondo ulertzea eta ondo ulertaraztea, komunikazio guztietan hizkera argia, erraza eta ulerterraza erabiliz; arreta pertsonalizatu espezializatua, integratua, goiztiarra eta malgua jasotzeko eskubidea, bai eta iradokizunak eta erreklamazioak egiteko eskubidea ere.

Legearen 70. artikuluan ere pertsonen eskubideak jorratzen dira; zehazki, artikulua horrek ezartzen du harremanak bitarteko elektronikoen bidez izateko eskubidea duela jendeak, zerbitzu elektronikoen eskuragarritasuna ziurtatuta edukiko dutenez, eta bazterketa digitalik ez jasateko eskubidea. Gainera, bidea irekitzen du Euskadiko hirugarren sektore sozialeko entitateak gaitzeko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko, interesdunen ordezkari izanik.

Herritarrei arreta integrala eta kanal anitzekoa emateari eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeari buruzko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 79. artikulua xedatzen duenez, administrazio publikoek, oro har edo berariaz, baimendutako pertsona fisiko edo juridikoak gaitu ditzakete transakzio jakin batzuk bitarteko elektronikoen bidez egiteko, baimendutako

pertsonen ordezkari. Artikulu horren 2. artikulua dio, gainera, gaikuntza hori herritarrei arreta emateko eskumena duen administrazio-organismoaren titularrak emandako ebazpenaren edo formalizatutako hitzarmenaren bidez taxutuko dela.

Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundearen estatutuek honako helburu hauek identifikatzen dituzte, besteak beste: inklusioa, pobreziaren eta bazterkeriaren aurkako borroka, zaurgarri diren pertsonen laguntzea, pobreak eta bazterkeriak eragindako taldeen adierazpena eta parte-hartzea bultzatzea.

Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren prestazioekin lotutako prozeduren kudeaketa arintzeko aldera, mekanismo zeharo egokia da erakundeei gaitasuna ematea, interesdunen izenean eta haien kontura, transakzio elektronikoen jakin batzuk egiteko, eta,aldi berean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko eskubidearen eraginkortasuna ziurtatzeko (eskubide hori Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 70.1 artikuluan aitortzen da).

2024an, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak dirulaguntza izenduna eman dio EAPN Euskadi - Pobreziaren eta Giza Bazterketaren Aurkako Europar Sarea elkarteari, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Sistema hobetzeko proiektu bat jakin bat garatzeko, hain zuzen, herritarrei prestazioen inguruan eman beharreko informazioari eta laguntzari buruz. Emandako dirulaguntza horren harira, proiektu pilotu bat abian jarriko da Euskadiko hirugarren sektoreko hiru erakunderekin batera, lurralde historiko bakoitzeko bana. Proiektu horren bidez, erakunde horiek gaikuntza lortuko dute interesa duten herritarren ordez jarduteko, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioekin lotutako prozeduren izapidetze elektronikoa.

Proiektu pilotuan parte hartuko duten erakundeak EAPN sareko erakundeak dira denak, proiektu pilotua lantzeko interesa dute eta hitzarmen honen bosgarren klausulako baldintzak betetzen dituzte. Horiexek aukeratu ditu Lanbideak lankidetzak-hitzarmena elkarrekin taxutzeko.

KLAUSULAK

Lehenengoa.— Xedea.

1.— Hitzarmen honen xedea da Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundea gaitzeko konpromisoak eta betebeharrak ezartzea, interesdunen izenean eta haien kontura, transakzio elektronikoen hauek egin ditzan:

a) Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren prestazioak aitortzeko eskaera, bai eta eskatutako dokumentazioa aurkeztea edo entzunaldi-izapide batean alegazioak aurkeztea ere, eskaeraren izapideetan.

b) DSBEren zenbatekoa eguneratzeko prozeduretan interesdunaren ordez jardutea, baita DSBE, EPO edo BGDSa kontrolatzeko eta berrikusteko prozeduretan ere.

c) Zehazki, honako izapide hauek egiterik izango du, betiere, ondorengo, a) eta b) letretan aipatzen diren prozedurekin lotuta:

1. Eskabideak eta erantzukizunpeko adierazpenak aurkeztea, bai eta eskabideko akatsak zuzentzea ere.

2. Lanbideri jakinaraztea baldin zerbait aldatu bada DSBE, EPO edo BGDS prestazioak jasotzeko eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea eragin dezakeena, edo DSBE prestazioaren zenbatekoa hiru hilean behin eguneratzeko garrantzitsuak diren baldintzak eta betebeharrak betetzea eragiten diona.

3. Lanbideri jakinaraztea prestazioen ordainketan eragina izan dezakeen edozein gorabehera garrantzitsu.
4. Alegazioak egitea eta dokumentuak edo bestelako froga-elementuak aurkeztea.
5. DSBE, EPO edo BGDS itzultzeko hasitako prozedurei alegazioak egitea, eta prestazio horien zorren ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaera bideratzea.
6. Zuzendaritza Nagusiaren mendeko organoek emandako ebazpenen eta administrazio-egin-tzen aurkako errekurtsioak jartzea, non eta, lege-xedapenei edo erregelamendu-xedapenei jarraituz, haiek emandako ebazpenek eta administrazio-egintzek ez dieten amaiera ematen administrazio-bideari.
7. Eskaera bertan behera lagatzea eta DSBE, EPO edo BGDS jasotzeko eskubideari uko egitea.
8. Jakinarazpenak eta jakinarazpen-abisuak jasotzea.

2.– Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundeak ez du gaikuntzarik izango inter-dunen izenean eta kontura jarduteko aurreko paragrafoan adierazitakoez bestelako inongo eskaera, izapide edo jarduketatan.

Bigarrena.– Arau-oinarria.

Lehenengo klausulan aipatzen den gaikuntza honako hauetan xedatutakoaren arabera egingo da: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5.7 artikulua; Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 70.3 artikulua; Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamenduaren 60.3 artikulua; eta Herritarrei Arreta Integrala eta Kanal Anitzekoa Emateko eta Zerbitzu Publikoak Bitarteko Elektronikoen bidez Eskuratzeko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 79.3 artikulua.

Hirugarrena.– Ahal publikoak erabiltzeko erreserba.

Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundea gaituta egongo bada ere interesdu-nak ordezkatzuz haien kontura transakzio elektronikoak egiteko, ezingo ditu ahalmen publikoak baliatu, ez eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administra-zioko edozein organori esleitutako eskumenak baliatu.

Laugarrena.– Prozeduran interesa dutenen parte-hartzea.

1.– Lehenengo klausulan aipatzen diren prozeduretan interesa duten pertsonak gaitutako era-kundeari ordezkaritza ematen badiote, aurrerantzean administrazio-jarduketak erakundeak eginak izango dira.

Horretarako, ordezkaritza eskatzen duten pertsonen zerrenda jakinaraziko dio Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundeak Prestazio eta Inklusioko Zuzendaritzari.

2.– Nolanahi ere, interesdunek badute beren kabuz agertzerik dagokien prozeduran, edozein unetan, eta, halakoetan, aurrerantzean, jarduketak agertu den horrekin egingo dira, erakunde gai-tuak aldezturik egindako izapideei kalterik egin gabe.

3.– Interesdunak prozeduran agertzeak ez du eraginik izango gaitutako erakundeari emandako ordezkaritzan; balekoa izango da halere, eta indarrean egongo da.

Bosgarrena.— Kaudimen-betekizunak.

1.— Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundeak kaudimen-baldintza hauek bete-tzen ditu:

a) Betekizun orokorrak:

i) Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen erroldan erregistratuta egotea. Ondo bete beharko dituzte Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen erroldari buruzko mar-txoaren 7ko 33/2023 dekretuko betekizunak.

ii) Interes orokorreko gizarte-jarduerak garatzea, bere estatutuetan ezarritakoaren arabera.

iii) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

iv) Ez egotea bere jarduerarekin lotutako delituengatik epai irmo bidez kondenatuta, ezta era-kundearen ordezkaria ere.

v) Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien zehapen penalik edo administratiborik, honako arrazoi hauengatik ezarritakoak barne:

1.— Sexuagatiko diskriminazioa eragiteagatik edo askotariko diskriminazioa eragiteagatik, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan edo Emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako mar-txoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoaren arabera.

2.— Zehapen osagarriren bat edukitzeagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsiriko Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen testuategi-nak 46.1.b) eta 46.bis.1.b) artikuluetan xedatutakoaren arabera, ebazpen irmo bidez.

vi) Laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea eragozten dion lege ezarritako inongo kausatan ez egotea, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxista-rik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoak barne:

1.— Ez edukitzeagatik berdintasun-planik indarrean, nahiz horretara behartuta egon Estatuko araudiaren arabera.

2.— Ez edukitzeagatik neurririk sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena edo indarkeria sexualak prebenitu eta borrokatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Esta-tuak ezarrita dituen legeen arabera, 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan.

vii) Erantzukizun zibileko aseguru bat sinatuta izatea, izapideren bat oker bat egin duten interes-dunei sor dakizkiekeen kalteak estaltzeko, baldin akatsa gaitutako erakundeari egotz badakioke. Polizak indarrean jarraitu beharko du erakunde gaitutzat diharduen bitartean.

b) Erakundearen esperientziarekin eta kapazidadearekin lotutako betekizunak:

i) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzailea izatea, gutxienez duela 3 urtetatik, edo, hala bada, Eusko Jaurlaritzako beste sail batekin edo foru- edo toki-administrazio publiko batekin gutxienez hiru urteko lankidetza egiaztatzea, zehazki, gizartean zaugarri diren edo izan daitezkeenei gizarteratzen eta/edo laneratzen laguntzeko prozesuetan.

ii) Gutxienez 3 urteko esperientzia izatea orientazio espezializatuan bereziki zaugarri diren kolektiboekin: gutxiengo etnikoak, asilo-eskatzailak, etxerik gabeko jendea, baztertuta daudenak, etab.

iii) Era berean, erakundeak zerbitzua EAEko bi hizkuntza ofizialetan ematea ziurtatu beharko du.

c) Baliabide materialak eskura izateari lotutako betekizunak:

i) Erakundeek lokalen eta ekipamenduen azpiegitura egokia izan beharko dute, helbide edo kokapen jakin batean, jarduera hasten denetik bertatik, gizarte-erakundeak gaitzeko esperientzia pilotuan garatuko diren ekintzak bertan lantzeko. Honako baliabide hauek izan beharko dituzte gutxienez:

1.– Lokal egokitua, irisgarritasuna sustatzeko arloko legeriaren arabera (20/1997 Legea eta garapen-arau teknikoak), honako baldintza hauek behintzat betetzeko moduan:

a) Oztoporik ez izatea lokalera sartzeko.

b) Oztoporik ez izatea zerbitzuak eskaintzen dituzten lekura iristeko.

c) Komun egokituak izatea, zerbitzuko hartzaile guztiek erabiltzeko modukoak.

d) Bulego bat izatea, gainerako ataletatik bereizita, banakako arreta eskaintzeko, eta proiekturako erabiltzeko. Bulegoak 6 metro koadroko azalera izan beharko du gutxienez, eta altzari eta ekipamendu egokiak (Internetarako konexioa duen ordenagailua, inprimagailua erabiltzeko modua, etab.).

2.– Jarduerari ekiteko unean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren informazio-sistemara konektatzeko banda zabaleko internetarako sarbide eraginkorra izango duen azpiegitura.

d) Gizarteratzearen eta laneratzearen arloko profesional kualifikatuekin lotutako betekizunak:

i) Jarduerak hasten direnerako, jendeari arreta emateko langile propioak izatea.

ii) Denak ere dagokien hitzarmenaren arabera kontratatuta egon behar dute; dagokien titulazioa edukita: gizarte-hezkuntza, gizarte-lana, psikologia, pedagogia edo antzekoa.

iii) Bai eta hiru urtetik gorako esperientzia eta curriculum egiaztatua gizarte- eta lan-laguntza eta -orientazioko eginkizunetan.

iv) Ofimatikari eta Interneten erabilerari buruzko ezagutzak ere izan behar dituzte.

2.– Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social entitateak, hitzarmen hau sinatzean, erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du (hitzarmen honen I. eranskina), erantzukizun zibileko aseguruari eta dituen giza baliabideei, baliabide materialei eta segurtasun-baliabideei buruzko datuen egiazkotasunari buruzkoa, eta adierazteko denak ere eskuera jarriko dituela, hitzarmen hau gauzatzeko aldera.

Seigarrena.– Betebeharrak.

1.– Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundeak honako betebeharrak izango ditu:

a) Interesdunen eskabideak telematikoki aurkeztea eta lehen klausulan DSBE edo BGDSarekin lotuta aipatzen diren izapideak burutzea.

Horiek burutzeko, arreta handiz jardun behar dute erakundearen aldetik jardungo dutenek, eta legez ezarritako epeen barruan. Interesdunari egotz dakiokkeen atzerapenik gertatzen bada izapideen egiaztapenean, horren berri emango zaio eta ekar ditzakeen ondorioen berri ere bai.

b) Interesdunen dokumentuak eskura edukitzea, eta haien izenean jarduteko ordezkari-tza ematea, dokumentuok gordetzea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Prestazio eta Inklusioko Zuzendaritzari eta erakunde horren ikuskaritzari helaraztea, baldin eta eskatu egin bazaizkio Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemari buruzko abenduaren 22ko 14/2022 Legeak eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duen 173/2023 Dekretuak esleitzen dizkieten eskumenak baliatuz.

Halaber, dokumentazio hori Herritarrek Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren eskura jarriko da, edonoiz eska dezake-eta.

c) Interesdunei beren izenean egindako izapideen berri ematea eta jakinarazpenen edukia helaraztea, ahalik eta azkarren.

d) Erakundearen kontura jardungo duten pertsonen zerrenda bidaltzea, hurrengo klausulan xedatutakoaren arabera.

3.– Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundea izango da erantzule, inongo intzidentziarik gertatzen bada oker parte hartu duelako izapideren batean, eta haren erruz izapideetan atzerapenen bat gertatu bada, edo izapideren bat bete gabe geratu bada, baldin eta:

a) Egiaztatuta badago interesdunak informazio zuzena eman duela, garaiz eta behar bezala, eta

b) Egiaztatuta badago, behar bezala aurkeztu izan balitz, interesdunaren mesedetan litzatekeela edo diru-sarrerak bermatzeko errentarekin lotutako kalte ekonomikoa saihestuko lukeela.

Zazpigarrena.– Datu pertsonalen tratamendua eta konfidentzialtasuna.

Datu pertsonalen babesari dagokionez, erakundeak honakoak bete beharko ditu: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra), eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa. Ondorio horietarako, aipatu Erregelamenduaren 28. artikulua betez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren kontura dabilen tratamendu-eragileztat hartuko da erakunde gaitua. Horregatik, datuen tratamenduei ekin aurretik, datu-babesari lotutako konpromisoa sinatu beharko du, ezinbestekoa delako proiektuaren kudeaketa behar bezala aurrera eramateko (hitzarmen honen III. eranskinean dator konpromiso hori).

Erakundeak enkargua bete beharrez eskuratu duen informazio guztia konfidentziala denez, sekretu profesionala gorde beharraz babestuta dago, aplikatzekoa den araudiaren arabera; beraz, ezingo dio informazio hori hirugarrenei jakinarazi, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aldeztu aurretik eta berariaz baimena eman ezean.

Zortzigarrena.– Gaitutako erakundearen kontura jardungo dutenak zein diren adieraztea.

1.– Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Prestazio eta Inklusioko Zuzendaritzari jakinaraziko dio erakundearen kontura zeintzuk jardungo diren: zerrenda bat prestatuko du, zerrenda hori eguneratuta edukiko du, eta jarduleei ere egindako aldaketa guztiak azalduko zaizkie.

2.– Klausula honetan aipatzen diren komunikazioak II. eranskinean jasotako eredu normalizatuaren arabera burutuko dira.

Bederatzigarrena.— Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren betebeharrak.

1.— Lehenengo klausulan aipatzen diren izapideak egiteko gaikuntza Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa inskribatzeko eskatuko du Lanbidek. Erregistro hori Herritarrei arreta integrala eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 80. artikuluan dator araututa.

2.— Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erraztasunak emango dizkio Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundeari, lehen klausulan aipatzen diren transakzio elektronikoa egi-teko dauden aplikazioetara sartzeko.

3.— Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak dokumentazio teknikoa eta prestakuntza egokia emango dizkie Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundeak izendatutako langi-leei, eta arreta-zerbitzu telefonikoa ere ezarriko du, gaikuntzari eta izapideei lotutako kontuekin laguntzeko.

Gainera, aipatutako erakundeari jakinarazpenak eta abisuak helaraziko dizkio, baldin eta lehe-nengo klausulan aipatutako izapideekin lotuta badaude abisuok eta horretarako eskaera egin badu, laugarren klausulan aurreikusitako baldintzetan.

Hamargarrena.— Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundeari emandako gaikun-tza baliogabetzea.

1.— Erakundearen gaikuntza baliogabetzeko arrazoi izango dira, eta, hortaz, hitzarmena azken-tze arrazoi, honako hauek:

a) Bosgarren klausulan ezarritako kaudimen-betekizunak ez betetzea, edonoiz.

b) Seigarren eta zazpigarren klausuletan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

2.— Baliogabetzea Lanbidek erabakiko du, eta kontraesaneko prozedura bat izapidetu beharko du horretarako, administrazio-prozedura erkidearen bide orokorren bidez arautuko dena, urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Baliogabetze-erabakian agertuko da baliogabetzeak ze ondorio izango dituen, baina inola ez dira hedatuko akordio hura eman aurretik erakunde gaitu gisa egindako izapideetara.

Hamaikagarrena.— Jarraipen Batzordea.

1.— Hitzarmen hau kudeatzeko, gainbegiratzeko eta kontrolatuta edukitzeko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori honela osatuko da: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak izendatu-tako bi kide, Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundeak izendatutako kide bat eta Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social en Euskadi elkarteak izendatutako kide bat. Sare horretako kide da Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundea, eta koordinazio-eginkizunak beteko ditu batzordean.

2.— Batzordeak ohiko bilkura bat izango du hilean. Horrez gainera aparteko kasuetan bildu liteke, alderdiren batek eskatzen duenean.

3.— Jarraipen Batzordeari dagokio hitzarmen honek sortutako konpromisoak interpretatzeari eta betetzeari buruzko arazoak ebaztea, bai eta alde sinatzaileei hitzarmenaren edozein aldaketa proposatzea ere.

Hamabigarrena.— Kontratua suntsiarazteko arrazoiak.

Hitzarmen hau azkendu egingo da xede dituen jarduketak betetzen ez badira, suntsiarazteko arrazoiaren bat dela medio; hala dio urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.1 artikulua.

Honakoak dira hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak (urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 artikuluan ezarritakoaren arabera):

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea, eta luzatzeko erabakirik ez hartzea.
- b) Sinatzaile guztiek aho batez hala erabakitzea.
- c) Sinatzaileetakoren batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
- d) Erabaki judizial batek hitzarmena deusez deklaratzeko.
- e) Beste arrazoiren bat, goian jaso ezakoa, hitzarmenean edo beste legeren batean jasota badago.

Hamahirugarrena.— Araubide ekonomikoa.

Hitzarmen honek ez dakarkie betebeharrak ekonomikorik alde sinatzaileei.

Hamalagarrena.— Indarraldia.

Hitzarmenaren indarraldia hiru hilabetekoa izango da, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitalak Zuzendaritzaren ebazpenaren datatik zenbatzen hasita. Ebazpen horren bidez, Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social entitateari baimena ematen zaio hitzarmen honetan aurreikusitako transakzioak bitarteko elektronikoen bidez egiteko, interesdunen ordezkari gisa.

Nolanahi ere, hitzarmena indarrean egon dadin, aurreko paragrafoan aurreikusitako baimena dagokionari emanda izan beharko du herritarrak artatzeko eskumena duen administrazio-organoak.

Hitzarmen hau amaitu baino lehen luzatu ahal izango da, sinatzaileek aho batez hala erabakitzen badute, beste 3 hilabetez. Indarraldia luzapenik adostu gabe igarotzen bada, amaitutzat joko da.

Hamabosgarrena.— Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, hala xedatzen baitu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko VI. kapituluak.

Hamaseigarrena.— Gatazkak ebaztea.

Alderdiek konpromisoa hartu dute hitzarmena betetzean sor daitezkeen gorabeherak elkar hartuta konpontzeko.

Hitzarmena garatzen eta betearazten dihardutela, alderdiek sestraren bat baldin badute eta hamargarren klausulan ezarritako jarraipen-batzordeak ezin badu gatazka hori konpondu, administrazioarekiko auzien jurisdikziora joko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean (uztailaren 13ko 29/1998) xedatutakoarekin bat etorriz.

Eta ados daudela adierazteko, alderdiek elektronikoki sinatzen dute hitzarmen hau, eta azken sinatzailearen data hartuko da formalizazio-datatzat.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren izenean.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lehendakaria,
MIGUEL TORRES LORENZO.

Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social elkartearen izenean.

Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundearen koordinatzaile nagusia,
MARTA SENZ ERIZ.

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Gaitutako erakundearen datuak.

ZABALTZEN-SARTU KOOP. ELK. DE INICIATIVA SOCIAL

Ordez kariaren datuak (sinatzailearenak).

MARTA SENZ ERIZ

NANa

KOORDINATZAILE NAGUSIA

Nik, behean sinatuz eta erantzukizuna nigan hartuz, honako hau ADIERAZTEN DUT:

- ✓ Egi azkoak dira agiri honetan azaldutako datuak.
- ✓ Bosgarren klausulan eskatzen diren kaudimen-baldintzak betetzen ditut.

Behean sinatuta, honako KONPROMISOAK HARTUKO DITUT:

- ✓ Gogotik beteko dut datu pertsonalak babesteko legeria.
- ✓ Behar duten dokumentazioa emango diet 6.1.b) klausulan identifikatutako organo eskudunei.
- ✓ Erakundearen kontura jardungo duen erakundeko langileen zerrenda jakinaraziko dut, II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

Lekua, eguna eta sinadura.

Datu-babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Tratamenduaren jarduera: Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren prestazioak.

Arduraduna: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.

Helburua: Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak izapidetu eta kudeatzea. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGDS).

Legitimazioa: Tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatzea; legezko betebeharra betetzea.

Lagapenen hartzaileak: Ez da halakorik izango.

Eskubideak: Eskubidea duzu zure datuak eskuratu, zuzendu eta ezerezteko, bai eta tratamendua mugatu eta aurkaratzeko ere. Ikus informazio gehigarria.

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehiago, hemen: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-cap2-eu.shtml>

II. ERANSKINA

ZABALTZEN-SARTU KOOP. ELK. DE INICIATIVA SOCIAL ERAKUNDEAREN KONTURA
JARDUNGO DUTENEN ZERRENDA

Gaitutako erakundearen datuak.

ZABALTZEN-SARTU KOOP. ELK. DE INICIATIVA SOCIAL

HELBIDEA

TELEFONOA

HELBIDE ELEKTRONIKOA

Ordez kariaren datuak

MARTA SENZ ERIZ

NANa

KOORDINATZAILE NAGUSIA

TELEFONOA

HELBIDE ELEKTRONIKOA

Gaitutako erakundearen kontura jardungo dutenen zerrenda

(1)

IZEN-ABIZENAK

NAN/AIZ

TELEFONOA

HELBIDE ELEKTRONIKOA

(2)

IZEN-ABIZENAK

NAN/AIZ

TELEFONOA

HELBIDE ELEKTRONIKOA

(3)

IZEN-ABIZENAK

NAN/AIZ

TELEFONOA

HELBIDE ELEKTRONIKOA

(4)

IZEN-ABIZENAK

NAN/AIZ

TELEFONOA

HELBIDE ELEKTRONIKOA

AITORTZEN DUT, erantzukizuna nigan hartuta, inprimaki honetan adierazi ditudan datuak egiazkoak direla.

Datu-babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Tratamenduaren jarduera: Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren prestazioak

Arduraduna: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.

Helburua: Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak izapidetu eta kudeatzea. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGDS)

Legitimazioa: Tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatzea; legezko betebeharra betetzea.

Lagapenen hartzaileak: Ez da halakorik izango.

Eskubideak: Eskubidea duzu zure datuak eskuratu, zuzendu eta ezerezteko, bai eta tratamendua mugatu eta aurkaratzeko ere. Ikus informazio gehigarria.

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehiago, hemen:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-cap2-eu.shtml>

III. ERANSKINA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN TRATAMENDU ERAGILEAREN MODUAN DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO KONPROMISOA

.....-an Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Zabaltzen-Sartu Koop. Elk. de Iniciativa Social erakundearen artean sinaturiko hitzarmenaren arabera, erakundea Lanbideren tratamenduaren arduradun den datu pertsonalen tratamendu-eragile izaera hartzen du, eta, ondorioz, honako konpromiso hauek hartzen ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (aurrerantzean, DBEO), eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean, DPBEDBLO) ezarritakoaren arabera, klausula hauetan azaltzen den bezala:

Lehenengoa.– Xedea.

Erakundeak idazki honen bidez datu pertsonalen tratamendua hitzarmenean jasotako ekintzak gauzatzeko helburu bakarrarekin egiten dela onartzen du, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendu gabeko beste helburu batzuetarako ezingo ditu tratatu.

Erakundeak arestian deskribatutako helburuak betetzeko eskuratzen dituen datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua da.

Bigarrena.– Tratamenduaren eragilearen betebeharrak.

Tratamendua eragilea den erakundeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako jarraibideen arabera tratatuko ditu datu pertsonalak, neurri tekniko eta antolakuntzazko egokiak aplikatuz, tratamendua legezko eskakizunen arabera izan dadin, eta, betiere, interesdunen eskubideen babesa bermatuz.

Tratamendu-eragile den entitateak konpromisoa hartzen du DPBEDBLOn eta DBEOn jasotako datu pertsonalen segurtasunari buruzko betebeharrak betetzeko, bereziki 32. artikulutik 36.era bitartekoetan jasotakoak.

Tratamendu-eragileak eta haren langile guztiek betebeharrak izango dituzte:

a) Tratatu beharreko datu pertsonalak edo mandatua betetzean biltzen dituenak mandatu honen xederako soilik tratatzea, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartuta. Inola ere ezingo ditu datuak bere helburuetarako erabili. Betebeharrak hori funtsezkoa da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 f) artikularen ondorioetarako.

b) Tratamenduaren arduradunaren berariazko baimena eduki ezean, datu pertsonalak hirugarrenei ez jakinaraztea edo zabaltzea, ezta kontserbatzeko ere.

c) Tratamenduaren arduradunaren jarraibideen arabera tratatzea datuak.

d) Idatziz jasotzea tratamendu-jardueren erregistro bat, arduradunaren kontura egindako tratamendu-jardura guztiak jasoko dituen, eta DBEOren 30.2 artikuluan eta DPBEDBLOren 31. artikuluan ezarritakoa jasoko duena.

e) Enkargu honen bidez eskuratu dituen datu pertsonalak isilpean gordetzea, baita xedea amaitu ondoren ere.

f) Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen konpromisoa hartzen dutela, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion erakundeak behar bezala jakinarazi behar duten segurtasun-neurriak betetzeko. Betebeharrak hori tratamenduaren edozein fasetan

tratamendu-eragilearen kontura esku har dezakeen pertsona orori aplikatuko zaio. Era berean, tratamendu-eragilearen betebeharra izango da haren mende dauden pertsonen informazioa ematea, sekretu-betebeharrari buruz eta betebeharrak horri eusteari buruz, zerbitzua ematen amaitu ondoren edo zerbitzutik bereizi ondoren ere.

g) Arduradunaren eskura izatea aurreko zenbakian ezarritako betebeharra betetzen dela egiaztatzen duten agiriak. Horien artean dago datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen zerrenda bat, eta bermatzea pertsona horiek konpromisoa hartzen dutela, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko, behar bezala jakinarazi behar baitiete.

h) Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen datu pertsonalak babesteko arloan behar den prestakuntza dutela bermatzea.

i) Datuak biltzeko unean, egingo diren datu-tratamenduei buruzko informazioa ematea. Datuak biltzen hasi aurretik, tratamenduaren arduradunarekin adostu behar da informazioa nola idatziko den eta zer formatutan emango den.

j) Tratamenduaren arduradunari laguntzea, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko, datuen aurka egiteko, datuen tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunerako eta erabaki individual automatizatuen xede ez izateko (profilak egitea barne) eskubideak baliatzean. Tratamenduak eragindako pertsonen beren eskubideak baliatuz aurkezten dituzten eskabideak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura bidaliko dira, hark ebatz ditzan.

k) Tratamenduaren arduradunari jakinaraztea, bidegabeko atzerapenik gabe eta, edozein kasutan ere, hirurogeita hamabi (72) orduko gehieneko epea igaro baino lehen, bere ardurapeko datu pertsonalen segurtasunaren urraketak, halakoren baten berri izanez gero, gorabehera dokumentatzeko eta komunikatzeko garrantzitsua den informazio guztiarekin batera.

l) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari laguntza ematea datuen babesari buruzko inpaktu-ebaluazioak egiteko eta, hala dagokionean, kontrol-agintaritzari aurretiazko kontsultak egiteko.

m) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ardurapeko datuak eta lehenengo estipulazioan adierazitako jarduerak gauzatzeko eskuratu behar dituenak baimenik gabe erabiltzea eragozteko segurtasun-neurri egokiak ezartzea. Nolanahi ere, honako hauetarako mekanismoak ezarri beharko dira:

i) Datu pertsonalak tratatzeko erabiltzen diren sistemak eta zerbitzuak konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzea.

ii) Gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzea.

iii) Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri teknikoak eta antolakuntzakoak eraginkortasuna aldi-aldi egiaztatzea, ebaluatzea eta baloratzea.

iv) Datu pertsonalak seudonimizatzea eta zifratzea.

n) Datuak babesteko ordezkari bat izendatzea horretarako legezko betebeharra izanez gero, eta bere nortasuna eta harremanetarako datuak arduradunari jakinaraztea.

o) Arduradunaren eskura jartzea bere betebeharrak betetzen dituela frogatzeko behar den informazio guztia, bai eta arduradunak edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendutako beste auditore batek egiten dituen auditoretzak edo ikuskapenak egiteko behar den informazio guztia ere.

p) Datu pertsonalak babesteko araudia eta erantzukizun proaktiboa betebeharra betetzen direla egiaztatzen duten ebidentziak izatea (adibidez: betetze-mailari buruzko aurretiko ziurtagiriak, auditorien emaitzak, jakabide-kodeekiko atxikimendua, etab.).

q) Zerbitzariak non kokatuko diren eta zerbitzari horiei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adierazten duen adierazpen bat aurkeztea. Lanbiderekiko harreman juridikoak dirauen bitartean, tratamendu-eragileak adierazpen horretan emandako informazioan gertatzen den edozein aldaketaren berri eman beharko du (zerbitzarien kokapenari eta lotutako zerbitzuen prestazioaren kokapenari buruzko adierazpena), aldaketa horiek egitea aginduko zaien azpikontratisten kasuan. Bi betebeharrak horiek funtsezkoak dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 f) artikulua ondo onartarako.

r) Erakundeak konpromisoa hartzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako datuak bere instalazioetan eskuragarri izateko bien arteko harreman juridikoa indarrean dagoen bitartean, eta gorde behar ez dituen edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura itzuli behar ez dituen euskarri guztiak suntsitu beharko ditu.

s) Kontratu-prestazioa amaitutakoan, honako hauek itzultzeko konpromisoa hartzen du:

i) Eskuratu dituen datu pertsonalak.

ii) Tratamendu-eragileak tratamenduaren ondorioz sortutako datu pertsonalak.

iii) Datu horietako edozein jasotzen duten euskarri eta agiriak, kopiarik gorde gabe.

Hala ere, tratamenduaren arduradunak datuak gorde ahal izango ditu erantzukizunak sor daitezkeen denboran. Azken kasu horretan, datu pertsonalak blokeatuta eta gutxieneko denboran gordeko dira, eta modu seguruan eta behin betiko suntsituko dira epe horren amaieran.

Hirugarrena.— Tratamenduaren arduradunaren betebeharrak.

Enkargu honen xedea betetzearen ondoriozko prestazioak gauzatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, tratamenduaren arduradunak, tratamendu-eragilearen esku jartzen du laneskaintzak erregistratzeko eta kudeatzeko jarduera gauzatzeko informazioa, bitartekaritzako erakunde laguntzaile gisa. Informazio hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Eskaintzen kudeaketa aplikazioaren bitartez egongo da eskuragarri.

Datu pertsonalen kategoria hauek jarriko dira tratamendu-eragilearen esku:

- Identifikazio-datuak.
- Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak.
- Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak.
- Ikasketei eta lanbideari buruzko datuak.
- Enpleguari buruzko datu zehatzak.
- Transakzioei buruzko datuak.
- Bereziki babestutako datuak: osasuna, genero-indarkeriaren edo terrorismoaren biktima, arraza, gizarte-bazterketa.

Datu horien titular diren interesdunen kategoriak: prestazioen eskatzaileak.

Tratamenduaren arduradunari dagokio:

a) Tratamendu-eragileari entregatzea dokumentu honen 3. estipulazioan adierazitako datuak.

b) Tratamendu-eragileak egin beharreko tratamendu-eragiketek datu pertsonalen babesari ekar diezaioketen arriskuaren analisia eta, hala badagokio, inaktuaren ebaluazioa egitea.

c) Dagozkion aldez aurreko kontsultak egitea.

d) Tratamendu-eragileak DBEO betetzen duela zaintzea, aldez aurretik eta tratamenduaren iraunaldian.

e) Tratamendua ikuskatzea, ikuskapenak eta auditoriak egitea barne hartuta. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren tratamendu-eragileak erakundeak oniritzia ematen du Lanbideren organo ikuskatzaileak ados ditzakeen kontroleta ikuskapen-jarduera guztiak egiteko, lagatako informazioa behar bezala lortzen eta erabiltzen dela egiaztatu eta aplikagarri diren arau-baldintzak betetze aldera.

Laugarrena.– Datuak babesteko araudia betetzea.

Honen bidez, bi alderdiak datuen babesaren arloko araudiaren mende jartzen dira (DBEO eta DPBEDBLO). Araudi hori ebazpenari aplika dakiokeen araubide juridikoa da, eta nahitaez bete behar dute bi alderdiak. Beraz, biek errespetatu eta bete behar dituzte datuak babesteko araudian xedatzen diren betebeharrak eta estipulazio guztiak.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, bi alderdiek nahitaez bete beharko dituzte konpromiso honetan eta ebazpen nagusian datuak babesteko ezarritako betebeharrak eta xedapen guztiak.

Bosgarrena.– Konpromisoak ez betetzea.

Erakunde sinatzaileak adierazten du badakiela eta berariaz onartzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edozein unetan eta alde bakarrez baliogabetu ahal izango dituela konpromiso hau eragin duen ebazpenaren bidez eskuratutako eskubideak, baldin eta ikusten badu dokumentu honetan hartutako konpromisoetako edozein ez dela bete.

Hartutako konpromisoak betetzen ez badira, baimenik gabeko erabiltzaileek informazioa bidegabe eskuratzen badute, agindutako eginkizunerako beharrezkoak ez diren prozesuak edo transakzioak esleitzen badira, edo lortutako informazioa zaintzen edo sekretatzen ez bada, edozein motatako erantzukizunak eskatuko dira, erantzukizun penala barne, eta, zehazki, *Datu Pertsonalak Babesteko eta* Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren IX. tituluan ezarritakoak.

Seigarrena.– Iraupena.

Konpromiso hau Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin harreman juridikoa izaten jarraitzen duen bitartean mantenduko da.

Tratamendu-eragilea
Legezko ordezkariaren edo pertsona baimenduaren sinadura eta erakundearen zigilua.

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

1.– Tratamenduaren eta harremanetarako datuen arduraduna: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua. Jose Atxotegi, 1. 01009 PK Vitoria-Gasteiz (Araba).

2.– Datuak eta harremanetarako datuak babesteko ordezkaria: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko datuak babesteko ordezkaria. Harremanetarako helbidea: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Telefonoa: 945 01 86 80. Webgunea: www.euskadi.eus/datu-babesa

3.– Tratamenduaren helburua: kontratazio publikoaren prozedura kudeatzea fase guztietan, hauek barne: egikaritzea, aldaketak, luzapenak, epe- edo prezio-aldaketak, azken zenbatekoa eta azkentzea, bai eta adjudikazio-prozeduran atzera egiteko erabakiak, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakiak eta kontratistari egotz dakizkiokeen eta kontratua suntsiaraztea eragin duten gorabeherak ere.

4.– Kontserbazio-epea: bilketaren helburua betetzeko behar den denbora.

5.– Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interesduna alderdi den kontratu bat egikaritzeko, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa betetzeko ere egiten da (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikulua b) eta c) apartatuak, hurrenez hurren; erregelamendu hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du).

6.– Hartzaileak: Interes legitimoa duten pertsonen eta Euskadiko Ogasun Nagusiari jakinarazi ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

7.– Eskubideak baliatzea: Datu pertsonalak jasotzen dituzten pertsonen eskubide hauek izango dituzte: datuetan sartzea, datuak zuzentzea, datuak ezerezte (ahaztua izateko eskubidea), mugatzea, aurka egitea eta tratamendu automatizatua ez jasotzea.

8.– Datu pertsonalen babesari buruzko informazio zehatza, toki hauetan:

a) Lanbideren webgunea. (https://www.lanbide.euskadi.eus/general/-/informacion/condiciones_de_uso_y_politica_de_privacidad/)

b) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB) 2016/679 (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>)

c) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/eli/es/lo/2018/12/05/3/con>).

Datu pertsonalak jasotzen dituen pertsonak edo pertsonen eskubide horiek baliatu ahal izango dituzte tratamenduaren arduradunaren aurrean, eskubideak baliatzeko prozeduraren bidez (<https://www.euskadi.eus/servicios/10842>).

Era berean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean edozein erreklamazio aurkezteko ahalmena du, edo aurretiazko erreklamazio bat egin dezake Datuak Babesteko ordezkariaren aurrean. (<https://www.euskadi.eus/servicios/10843>).